

Mediaz

Sortze data. Amaitze eta/edo desegite data.

1996 - 2000

Jardute esparrua.

Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta beronen ordezkapena Espainiako estatuan.

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Artista bisualen elkarte bat izan zen, federatuta zegoena *Unión de asociaciones de artistas visuales* izeneko sarearen barruan.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat izan zen, baina *Unión* erakundearen barruan VEGAP garatu zen, artista bisualen egile-eskubideak babestea helburu zuen entitate bat. Asmoa zen lege-aholkularitza eta babes juridikoko zerbitzu bat ematea.

Betekizunak eta helburuak:

Elkartea sortu zen arte-ekoizpenak, jarduera profesionala den aldetik, tresna korporatibo bat izan zezan. Helburua zen bitartekaritza egitea, artelanen ekoizpena, banaketa eta zabalkunderako egiturak lortze aldera.

Espacio Abisal

espacioabisal.org
 abisal@jet.es
 (jadanik ez daude aktibo)

Sortze data. Amaitze eta/edo desegite data.

1997 (lehen bilerak urtebete lehenago; 1996ko Red Arte jardunaldietan parte hartu zen)
 Desegiteko zain.

Jardute esparrua.

Batez ere, Bilbo.

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Artisten kolektibo hau praktikan eratu zen irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarte gisa. Estatutu propioak, batzar-bidezko prozesu batetik sortu zirenak astero bilerak eginez urtebetez.

Protokolozko estatutuak, Eusko Jaurlaritzaren ereduaren arabera.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Irabazi-asmorik gabeko elkarte erregistratua da, eta oraindik da, nire ustez
 Elkarte formala zen (ez dakit oraindik den), gutxieneko bazkide kopuru bat zuena, bai eta hainbat konpromiso ere, bat datozenak/zetozenak batzarrean ezarritako zenbait irizpiderekin.

Betekizunak eta helburuak:

Gaurko artea hedatzea, honako hauei arreta handiagoa emanez:

- artista hasiberriak, haien lehen erakusketan lagunduz.
- este espazioetan normalean aurkitzen ez diren proposamenak, dela euren ezaugarri formalengatik, edo dela kanal komertzialetan sartzeko duten zailtasunagatik.
- eduki ideologiko nabarmena duten obra edo proposamenak.

Hartu-emana eta lankidetzak beste hainbat espazio, elkarte edo tokiko kolektiborekin edo Red Arte-koekin.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

Jarduerari buruzko hiru txosten: Txostena 00, Txostena 01 y Txostena 03.

Sarean

www.sarean.info

Sortze data.

1998

Jardute esparrua.

San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoak.

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Auzo-elkargune bat da, adierazpen kultural guztientzat irekita. Mariaren Bihotza Plazan dago, eta berrabiatzen ari gara duela zenbait hamarkada sortutako elkarte baten jarduera, sormenaren eta elkartasunaren eragile askoren arteko komunikazioari esker, zeinak aritzen diren San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoen testuinguruan.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Kultur elkartea.

Betekizunak eta helburuak:

Zeregina:

Kohesio soziala eta kulturen arteko bat-egitea sendotzea San Frantzisko auzoan, herritarren parte-hartzetik abiatuak diseinatutako jarduera soziokulturalak programatuz .

Helburuak:

Kultura askotariko eta belaunaldien arteko elkargune bilakatzea.

Erabiltzaileek berek erabat diseinatu eta kudeatutako programazioa sortzea.

Auzokideen, saltokien eta eragile soziokulturalen arteko kohesio soziala sendotzea.

Lan artistiko, kultural eta soziala sustatu eta ikusgai bihurtzea San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoetan.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

Antecedentes <http://sarean.xtreemhost.com/sarean-2/antecedente-sarea/>

Facebook <https://www.facebook.com/sareansf>

Asamblea Amarika

<https://www.facebook.com/asamblea.amarika>

Sortze data. Amaitze eta/edo desegite data.

2008ko abuztua - 2011ko abenduak 17 (nahiz eta ofizialki ez den inoiz desegin, batzar irekia denez gero).

Jardute esparrua.

Euskal Herria

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Arabako Asamblea Amarika kolektibo ireki eta plurala zen, eta osatuta zegoen artistez, sortzaileez, eta arte eta kulturari sozialki edo lanbidez lotutako pertsonen; kultura-praktika garaikideekin erlazionatuta zeuden tokiko eragileek bazuten leku bat bertan. Kolektibo independentea zen, helburu zuena arte-sorkuntza tokiko komunitatean garatu eta sustatzea, bere lan-ingurunea duintzeko asmoz.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Kolektiboa izaera juridikorik gabea da, eta batzar irekiaren formatua du.

Betekizunak eta helburuak:

Arte-kolektiboak zuzenki hartu zuen parte Arabako Foru Aldundiarenak ziren hiru erakusketa-espazioren kudeaketan –2008 eta 2011 urteen bitartean– Amarika Proiektuaren bidez. Programa horrek Arabako arte-ehundura lokala ordezkatzeko zuen, batzar ireki eta parte-hartzaile gisa eratuta, eta, horrez gain, lotura-gune izan nahi zuen erakundearen eta sorkuntza-errealitate garaikidearen artean.

Zuloa erakusketa-espazio independentea kudeatzea.

Lantaldeak sortzea, horien bidez arte-sektorearen arazoak konpontzen laguntzeko: %2 kulturala, “Talleres Zaramaga”, “Inmersiones”....

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/17/18131824.pdf>

<http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20090702/145144/es/La-Asamblea-Amarika-sale-calle-para-mostrar-su-modelo-gestion>

<https://inmersiones2013.wordpress.com/>

http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2012/01/1_ZRMG_8M_WEB.pdf

eremuak

www.eremuak.net

Sortze data.

2010

Jardute esparrua.

EAEko esparrua

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

eremuak, praktika artistikoen testuingurua euskal esparruan inplementatzeko prestatutako espazioa da..

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

ez du izaera juridikorik. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren proiektu bat da. Ekonomikoki Artium eradundeak instituzio hartzailea da.

Betekizunak eta helburuak:

eremuak-ek bere ibilbidea 2010en hasi zuenez geroztik, arte garaikidea eta beste jarduera artistiko eta diskurtsiboak sozializatzea bilatzen du, ekoizpenaren eta difusioaren arteko beharrezko korrelazioan eraginez. Horrela, eremuak-ek deialdi ireki eta jarraitua bezala funtzionatzen du, sormenari, interpretazioari eta bitartekotzari lotutako proposamenak ekoizten dituena.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

www.eremuak.net

Karraskan

<http://www.karraskan.org/>

Sortze data.

2011ko urtarrila.

Jardute esparrua.

Euskadi

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Elkarre profesionala gara, eta sustatu nahi ditugu berrikuntza kulturaren eta berrikuntzaren kultura Euskadin. Gure sareak elkartzen ditu sorkuntza garaikidearekin eta sormen aplikatuarekin lotutako eragileak, espazioak eta programak, abiapuntu hartuta hainbat eremu eta diziplinaren arteko elkarrizketa, zeharkakotasuna eta hibridazioa.

Egun, elkarre hauek ordezkatzeko dituzte: Azala, Bitamine, Buenawista, c2+i, ColaBoraBora, Harrobia, Kaxilda, Kultiba, Kunarte, muelle3, Ubiqa, RMO, Zawp.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Elkarre profesionala.

Betekizunak eta helburuak:

- Eragitea: Interlokuzio eta errepresentazio kolektiborako tresna bat izatea hainbat erakunde publiko eta pribatuen aurrean.
- Berritzea: Politikak eta ekimenak sustatzea, horien bitartez kultura eta sormena ikerketarekin eta berrikuntzarekin lotzeko.
- Kolaboratzea: Lan egitea sinergiak sortzeko, kooperazio mekanismoak garatzeko, ezagutza transferitzeko eta elkarri laguntzeko.
- Profesionalizatzea: Jardute-lerroak diseinatzea sektoreko eragileen garapen profesional egoki baten alde.
- Garatzea: Enpresa-ehunduraren eta hirugarren sektorearen garapena eta kontsolidazioa sustatzea kulturaren eta sormenaren eremuetan.
- Ikusgaitzea: Kulturak eta subjektibotasunaren produkzioak, bizitza garatzeko funtsezko mekanismoak diren aldetik, aitortza sozial handiagoa izan dezatela lortzea.

Plataforma A

Plataforma A-rekin / Plataforma con A, ezagunagoa Plataforma A gisa.

<https://www.facebook.com/groups/aplataforma/>
plataforma.arekin@gmail.com
plataforma_a@googlegroups.com
www.wiki-historias.org

Sortze data.

2011

Jardute esparrua.

EAE eta artearen esparrua.

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Kolektibo bat da, elkartzen dituen arte garaikidearen esparruko profesional asko eta askotarikoak.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Egitura informala, hau da, instituzionalizatzerak behartzen gaituen izaera juridikorik gabea; topaketa edo batzarren bidez antolatzen gara.

Betekizunak eta helburuak:

Kolektibo bat da arte eta kulturaren sektorean diharduten profesionalentzat: artistak, kultura-kudeatzaileak, historialariak, kritikariak, erakusketa-komisarioak, etab. Euskal Herrian sortu zen (2011), emakumeen eskubide-berdintasuna aldarrikatzen duten ekintza eta estrategiak egiteko premiaren aurrean, eta, Berdintasun Legeen babesarekin, arte eta kulturaren sistemako ikusezintasun sistematikoaren eta bazterketa sexistaren kontra. Bizi dugun bereizkeria-egoera gordinaren aurrean, administrazioei eskatzen diegu erantzun biribila eman dezatela.

4/2005 Legeak bere 25. artikuluan zehazten du ezen "Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan".

Pentsatzen dugu ezen, asmo-adierazpen hori gorabehera, gai horretan ez dela funtsezko aldaketarik gertatu azken 10 urteotan; horregatik, herri-administrazioei eskatzen diegu jar ditzatela behar diren bitartekoak emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua lortzeari begira kultura eta arte garaikideen esparruan, eta hala egiten dugu ekintza instituzional eta performatiboen bidez, bai gobernariak bai herritarrek ezagun dezaten egoera, eta aurre egin diezaioten.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

<http://www.m-arteyculturavisual.com/2013/06/04/asalto-plataforma-a/>

<http://www.m-arteyculturavisual.com/2014/05/20/brindis/>

- Kontsultatu online Plataforma A-ri buruzko historia:

www.wiki-historias.org

- change.org gunearren esteka, Lehendakariarentzako gutuna sinatzeko:

<http://www.change.org/es/peticiones/a-toda-la-sociedad-denunciar-la-desigualdad-de-las-mujeres-dentro-del-arte-y-la-cultura-3>

- GARA egunkariaren esteka BRINDIS ekintzari buruz (2014):

http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-05-18-07-00/hemeroteca_articles/brindis-de-plataforma-a-para-pedir-que-se-respete-la-ley-de-igualdad-en-el-mundo#_=_

- Maria Ptqk-en erreportajea, bestek beste Plataforma A kolektiboa aipatzen duena:

<http://issuu.com/galde.aldizkaria/docs/galde05todo/64>

- ETB2ko Forum saioa (2013ko otsaila): "Forum" saioan gonbidatu gisa parte hartzen; programa ETB2n emititu zen 2013ko otsailaren 18an, astelehenarekin, 08:00etan:

<http://www.eitb.tv/es/#/video/2157538319001>

- ASALTA! ekintzari buruzko erreportajea La Sexta katean, 2013ko maiatzaren 18an, asteburuko albistegian, (3. zatiko 9. minutuan):

<http://www.atresplayer.com/television/noticias/lasexta-noticias/>

- Andrea Abalia-k Plataforma A aipatzen du Deia-n 2013ko maiatzaren 30ean idatzitako artikuluan:

<http://www.deia.com/2013/05/30/opinion/tribuna-abierta/futuras-exmises-querer-es-poder>

- Madrilgo MAV foroa, 2015eko maiatzaren 29:

<http://www.mav.org.es/index.php/52-mav/1714-foro-mav-2015>

S.A.

(zehaztu gabeko siglak, "Sociedad de Artistas" edo izan daiteke)

Sortze data.

2013ko apirilak 7 - 2013ko uztailak 5 (geldirik, baina berriz ekiteko gogoarekin)

Jardute esparrua.

Bilbo eta inguruak, baina Bartzelonarekin ere konektatzen zen.

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Ez zen zehaztu azkenean.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Egitura informala.

Betekizunak eta helburuak:

Abiapuntua izan zen jasangarritasun ekonomikoa praktika artistikoan.

Helburuak: egoera aztertu eta hautabide posibleak pentsatzea; epe laburreko helburu batzuk sortu genituen, baina ez ziren erabat garatu, salbu posta-zerrenda bat eta aldi bateko lanen iragarki-taula bat Interneten.

Gure nahien artean, aztertzen ari gara fanzine bat eta truke-sistema bat sortzea, konpartsa bat eratzea jaietan txosna batekin parte hartzeko, etab.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

Ordaindutako lan bizkorren iragarki-taula bat sortu genuen Interneten (katelanak) artisten onurarako; hasieran pasahitza zegoen pribatutasuna babesteko, baina orain ez da erabiltzen.

Posta-zerrenda sortu genuen, proposamenean interesa lezaketenezat:

sab@lists.riseup.net

WikiToki

<http://wikitoki.org/>

Sortze data.

Ofizialki, 2014ko martxoan. Talde informal gisa, urtebete lehenago hasi zen lanean.

Jardute esparrua.

Bilbo (San Frantzisko auzoa du kokaleku eta testuingurua).

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

WikiToki laborategi bat da alor hauen arteko lankidetzak praktikak lantzeko: ekintza kulturala, berrikuntza soziala, komunitate-garapena eta ekonomia banatua. Gunea Bilboko San Frantzisko auzoan dago, eta bertan esperimintatu nahi dira erlazio, hibridazio eta/edo baterako sorkuntza modu berriekin, hainbat diziplina eta esparruren artean, profesionalen eta amateurren artean, gizarte zibilaren eta eragile publiko eta pribatuen artean. Aukera bat da elkartzeko eta esperimintatzeko, ardatz harturik erlazio, antolaketa, ikerketa, sorkuntza, ekoizpena eta kontsumo modu berriak.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

WikiToki bokazio publikoko ekimen pribatua da. Elkarre baten izaera juridikoa du. Batzarra da organo erabakitzailea. Gaikako lantaldeak daude: barne-kontuak, harremanak, espazio fisikoa, espazio digitala. Aldian behin auzolana antolatzen da zeregin espezifikoei heltzeko. Denboraren kudeaketa denbora-banku baten bidez egiten da elkarren arteko ekarpenak egiteko. Besteak beste, 350 m²-ko espazio komuna partekatzen dugu, BilbaoEkintza hitzartutako akordio baten bidez (diruz lagundutako alokairua).

Gaur egun, WikiToki eragile hauek osatzen dute: Amets Aldatzeko, Artaziak, Basurama, Clickea, ColaBoraBora, Dooroom, Histeria Kolektiboa, Ideatomics, Iker Olabarria, Josunene, Kultiba, Macarena Recuerda Shepherd, Montera34, Pez [estudio], Shareak, Ttipi studio eta Zaramari.

Betekizunak eta helburuak:

Mutualismo moduak garatzea ekonomia-eredu sozial, kolaboratibo eta banatuak ardatz hartuta. Eragileen eta inguruneen arteko harremanak garatzea elkarrekiko esparru berria sortzeko (WikiToki-rena bera, eta, geruzatan, La Cantera plazarekin, auzoarekin...).

Lankidetzarako formula eraginkorrakoak bilatzea, erdigunean jartzen dituztenak pertsonak, nahitasunak eta zainketak.

Espazioa bera WikiToki-ren jardura gauzatzeko egokitzea eta auzo guztiko espazio eta baliabide komunaren sare bat sortzea.

Funtzionamendu eta komunikaziorako tresnak eta protokoloak sortzea, askeak eta irekiak direnak.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

Bizitzaren jasagarritasuna garrez dauden pertsonen alderantziz proportzionala da:

<http://wikitoki.org/2015/02/personas-en-llamas/>

Artisten Meeting Pointa_OKELA sormen lantegia

www.okela.org

Sortze data.

10-04-2014

Jardute esparrua.

Bilbo (Bizkaia) kokatzen den espazioa baldin bada ere, Euskal Herri osoko geografia artistikoa barnebiltzen du.

Definizioa: Zehazki, zer da? Elkartea, sarea, kolektiboa, proiektu instituzionala, adituen mahaia...?

Euskal Herriko (bertan bizi, jaio edota lan) artisten sare bat da. Generazio eta ibilbide ezberdinetako artistak kokatu, identifikatu eta harremantzen dituena. Sare hau era digital eta fisikoan osatzen da. Digitaki web orrian aurki daitekeen mapa interaktiboaren bitartez, bi hietik behin eguneratzen doana, eta fisikoki 3 hiletik behin antolatzen diren jardunaldi fisikoaren bitartez.

Erakundearen izaera juridikoa. Egitura formala edo informala da? Irabazi asmorik gabeko erakundea al da, edo ez du izaera juridikorik eta funtzionatzen du kolektibo, sare, adituen mahai... baten gisa?

Artisten Meeting Pointa OKELA sormen lantegiak aurrera daraman proiektu bezala kokatzen da. OKELA, artistek kudeaturiko *jakintza, experimentazio, elkartruke eta eztabaidarako proiektua kulturala da. Juridikoki irabazi asmorik gabeko elkarte kulturala da, kolektiboki modu asanblearioan antolatzen dana.*

Betekizunak eta helburuak:

Euskal Herriko aktibitate artistikoaren berri ematea.
Artisten arteko harremanak sortu eta sendotzea.
Artisten generazioen arteko harreman eta transmisioa erraztea.
Kultura herritartzea.
Artistaren alde bisuala alde diskurtsiboarekin bat ikustaraztea.
Euskerak eremu artistikoan presentzia izatea.
Eremu artistikoan genero ikuspegitik ekitea.

Informazio osagarria: erreferentziako estekak, testuak edo argitalpenak:

www.facebook.com/okelalantegia

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2465/arte-plastiko-eta-bisualak>

http://www.berria.eus/paperekoa/1842/032/001/2015-05-05/loratu_gabeko_arte.htm

<http://www.berria.eus/paperekoa/1842/040/001/2014-12-09/mapa.htm>

consonni

Jardunaldiak. Antolaketa kolektiboa arte bisualetan

GEUK

<http://gukgeurekulturaz.com/>

geukguneirekia@gmail.com

II Topaketa - 2014.06.12 Durangon: <https://sites.google.com/site/geukiitopaketa/>